

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko abuztuaren 19a / IV. urtea / 140. zenbakia

Etorkizuneko zuhaitziak

Duela lau, bost edo sei mende atera zuten lehendabiziko hostoa, abegia eman zioten lehen txoriari. Makina bat garai bizitakoak dira, hamaika gertaera ikusiak. Basoetan inguru osoa menderatzen dute beren adar luze eta sendoekin, eta hirietako jardinetan oinezkoen begiradak altzarazten dituzte. Zuhaitzen artean monumentuak dira, naturaren monumentuak, Nafarroako Gobernuak izendatu duen bezala. Hogeita hamaika aukeratu dituzte, lurralde osoan.

Ez dira horregatik, baina, gaitzetik libre, eta askok zainketa berezia behar dute. Hori egiten du, hain zuzen, Gabriel Igiñiz biologoak, 31 zuhaitzak aurkitu eta sailkatu ondoren, arreta handiz aztertzen dituena. Bera da bakarrenetakoa arlo honetan, eta bere begiak, gaur egun, hirietara ere zabaldu dira. Han, zuhaitzien plangintza egin beharra azpimarratzen du, eta horretarako ikastaroak hasia da ematen. Berak dioen bezala, zuhaitzak epe luzerako lana da, «baina guk gure garaian bete behar dugu, etorriko dira eta lekuko hartuko dutenak». Etorkizunera begira lan egiten du beti.



Izerdia

Estudiante garaian aurkitu nuen (eta oraindik ez dakit amets bat izan zenentz) itsasora begira zegoen Donostiako villa baten horma zuria idatzita: 'Nere izardia'. Sinesteak ere lanak ematen zizkidan. «Gizajoa», pentsatu nuen. «Ausarta duk», esaten zidan barne ahots apalago batek. Izan ere, bizilekuari izenak jartzerakoan ezin dotorezia bera eskatu sehaskatik burges izan denari eta baserrian sortu eta villa batean bizitzera iritsi denari.

Beti izan dira izerdiaren defendatzaileak. Behiala izerdi biblikoa zen preziatuena eta ia bakarra. Izanen zen tarteka amets gaiztoren batek eragindako pixka bat, edo maindire artean ezo-

hiko saio luzeagoren baten ondorengo, baina duda egiten dut... Gure herriak aski izan zuen Bibliaren orri gutxi irakurtzea mezu esentzial aurkitzeko.

Izerdia eta kastigua sinonimoak zirenean dena argiago zegoen. Orduan propialarena baino nahiago zen lagun urkoaren azal bustiaren ikuspena. Desio bat besterik ez, ordea. Helburu urrun bat, onik onenan. Sortzeak dakarren bekatua ezabatzeko bota behar zen izerdia, eta igandeko mezak ematen zuen itxura txukuntzeko aitzakia (ez zen eta ez da erlijioaren aldeko argudiorik makalena). Helburua izerdia jori isurtzea izaten zen, ahal bezain laster izerdirik ekarriko ez zuen zerbaitetan ari ahal izateko, eta,

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



ahal izanez gero, *eau de cologne*-aren gozoa eskatzen zuen lanbide bat aurkitzeko. Esperantza horrek mantentzen zuen luzaro lanean jende asko. «Guk

egin ez duguna gure seme-alabek lort dezakete». Semea delineante, alaba pelukera.

Urteak joan ahala izerdiaren defendatzaileak gehitu eta izerdi motak aniztu egin dira. Gaurko egunean izerdia bizipozaren adierazgarria da. Edozeinek du izerditzeko eskubidea. «Izerditzea komeni zait», entzun ahal dugu maiz. Izerditzeak onura besterik ez dakarrela esaten digute. Verbigratia: izerditzen duena bizirik dago, izerdiarekin batera barne pozoinak egozten ditugu, izerdia («freskoa, eh!», gaineratzen dute), oso inportantea da sedukzioaren orduan...

Eta hor dago gakoa: izerdiak, ametitua izateko, freskoa izan behar du, momentukoa. Izerdi mota hau praktikatzeko dutxa bat

izan behar da eta ez oso urrun. Izan zaitez naturala. Lantegitik gumnasiora. Behartu gabe. Korbatatik txandalera. Formala eta informala.

Izerdi zaharra beste kontu bat da. Izerdia ez da gordetzeko, ezin da betirako usain bihurtu. Hori gertatzen bada, I'm zorri. Hor amaitzen da izerdi demokratikoa, lurrina usaintzeko dugun eskubidea galtzen hasten den puntuan.

Egungo hiritarren zorionerako usain gozoak gero eta leku gehiago hartzen ari dira. Horregatik hiritar berriak, etorkizunari agur egiteko tenorean, beldurrik gabe goratzen dute besoa, *deodorant* segur batek estaltzen baitio besapeko kiratsa. Goizero Bibliaren esanetara.

ERAKUSKETAK



Pintores Tafallesen de Hoy izeneko erakusketa zabaldu zen joan den abuztuaren 9an Tafallako Erakusketa Aretoan eta Lagar Aretoan. Erakusketa hau ikusteko aukera izango dute bertakoek datorren abuztuaren 28a bitartean, Kultura patronatoak antolatua.

Sagrario San Martin margolariaren erakusketa zabaldu zen joan den asteartean eta hilaren amaiera bitartean, Nafarroako Aurrezki Kutxaren Kultur Aretoan izango da ikusgai. Astelehetik ostirala bitartean arratsaldean zabalduko ditu ateak eta asteburuetan goizean.

Nafarroa Margo Sarian parte hartu zuten eta epaimahaiak aukeratu dituen hogeit hamar margolarien obrak Iruñeko Erakusketa Aretoan daude ikusgai irailaren 4a bitartean. Margo Saria irabazi zuen Elena del Riveroren 'Carta en cadenetá' koadroa ere bertan izango da.

ANTZERKIA



Trokolo antzerki taldeak Doneztebe-Deion 'Colombina enamorada' obra antzeztuko du gaur, arratsaldeko 8.30etan. Bihar Trokolo taldeak Bustora eramango du obra berbera eta ordu berean antzeztuko du. Igandean, berriz, Ibargoiti-Getzen taularatu dute 'Colombina enamorada' eguerdiko 13.15etan.

TEN-Pinpilinpauza taldeak 'El bailecito' obra eskainiko du bihar Mutiloabeitiko udal igerilekuan, arratsaldeko 8.30etan. Ekitaldi hau Nafarroako Gobernuaren Arte eta Kultura programaren barru egingo da.

ZINEMA



Urzainkin 'Los últimos días del Edén' filmea botako dute gaur gaueko 10etan. Bihar, berriz, Olkutzen ikusi ahal izango dute filme hau ordu berean eta Lergan igandean, eguerdiko ordu bata eta laudenetan.

Irurtzungo kultur egitarauaren barruan, 'En la línea del Fuego' filmea eskainiko dute gaur, gaueko 10etan Foruen plazan.

MUSIKA

Los Dinosaurios taldeak Lizarran joko du gaur gaueko 10etan San Miguel plazan. Bihar berriz, Oibarren, herriko plazan joko du talde honek gaueko ordu batean.

NAFAR KRONIKA

ANA UNANUE

Sexua, plutonioa eta putreak

Gipuzkoan astebete eta egun bateko zigorra bete ondoren, ez dago etxera itzultzea bezalakorik. Benetan, zein goibelak diren goizak Donostia aldean gosariarekin batera bertako prentsa irentsi behar baduzu. Salbea, Erztzaintza eta antzekoak edonoren gosaria mingosteko modukoak dira. Eskerrak tarteka.

ken berriarekin asaldatu ninduten lagunek, zeharo aztoratuta: «Sex-shop bat zabaldu behar dute!». Ez nuen sinetsi —halako bizio zikinak Iruñean, azken erreserban? Farmazia askotan oraindik kondoiak erosterik ez eta koloretako konsoladoreak, berriz, libre?—, eta denborak arrazoi eman dit. Sex-shopak apenas

bili izana eskertu ziona, alegia— zelakoan geundenok ez genuen Julio Oroz bezalako bat espero herri berean. Enpresari nafarra maletan plutonio puska bat sartuta zebilen mundutik, baina berak dioenez ez zuen intentzio txarrik; trafikatzaileak salatze asmoz sartu zen safean. Dagokionak anpara gaitzala hain borondate



—oso tarteka, por zierto— Nafarroan inprimatutako egunkariaren bat iristen zen, eguna pixka bat alaitzeko: 'Aitaginarrebaren behi batek adarkadaz zauritu du errekoradore bat Funesen'. Hori bai titularrá, eta ez Aste Nagusiko gora-beherak.

Astean zehar hobeak irakurri ahal izan ditut, hala ere. Iruñera iritsi bezain laster az-


iraun zuen egun bat. Astearte goizean ireki eta arratsalderako itxi egin zuten, udaltzainen bi bisitaldi jaso ondoren. Hala behar du izan, bestela nortasuna galduko bailuke hiri santu honek.

Bigarren ezustea Baztan aldetik heldu da. Iruritako fenomeno bakarra Juan Meoki alkate jauna —kartel baten bidez Amabirjinari kondoiak ez era-

oneko jendearengandik!

Eta, eskatzen hasita, noiz-behinka buru gainera erortzen zaizkigun F-18 hegazkinetarik ere babes gaitzela eskatuko nuke, aste honetan beste bat erori baita Bardeetan, bigarrena hiru urtean. Putreak ere sarean atzemanda geldituko ez balira, bolanta sareak jarri beharko genituzke Zangoatik Korteseraino.

ASTEKO PERTSONAIK



Lawell Owens
Saskibaloia jokalaria



Jose Miguel Contreras
Brigadista

Señorio de Zuasti saskibaloia taldeko jokalaria berria da 2,06 metro luze Sden Lawell Owens estatubatuarra. Little Rock izeneko herri batean jaio zen orain dela 24 urte eta Hezkuntza Berezian lizentziatu da. Berak azaldu duenez, «saskibaloia da nire bizitzan lehen gauza eta horretarako nago hemen». Argi dauka zein den bere helburua talde nafarran: «Garaipenak lortu». Hain zuzen ere, Justo Sanzek entrenatzen duen talde honen bizkarrezurra izango da Lawell Owens estatubatuarra, Urdiain eta Viñuales jokalariekin batera. Owensek Kolonbiako ligan jokatu zuen iaz eta bertan, batez beste, 30 puntu eta 14 errebote lortu zituen.

Jose Miguel Contreras eta berarekin zihozten bost euskaldun Mexikotik bidali dituzte zenbait egunetan zehar polizia atzetik izan ondoren. Poliziak atxilotu eta aireportura eraman zituen. Bertan lau ordu egon behar izan zuten polizien autoan. Hegazkin batean sartu eta Mexiko Distrito Federaleko aireportura eraman zituzten eta Espainiako enbaxadorearekin hitz egitea eskatu bazuten ere, jaramonik egin ez eta lau orduko galdeketa jasan behar izan zuten banaka. ETako kideak edo zapatistak ziren galdetu zieten. Azkenean, Madrilerantz bidali zituzten. Asteazkenean Gasteizen eman zuten prentsaurrekoan Mexikotik «arrazoi politikoengatik» kanporatu zituztela esan zuten, eta han dagoen hauteskunde giroarekin nahastu zuten: «Ez dute gerta daitezkeen irregulartasunak atzerrian ezagutzerik nahi».

AHAZTU GABE!

DANTZA



Jose Antonio eta Espainiako balletak dantza ikuskitzuna eskainiko dute gaur, gaueko hamarretan, Elizondoko karpan, Nafarroako Jaialdien barruan. Jose Antonio dantzaria Antonio Gadesen Espainiako Ballet Nazionalan sartu zen lehen dantzari gisara 1978. urtean. 1986an, berriz, konpainiako zuzendari izendatu zuten, dantzari nagusiaren maila galdu gabe. Besteak beste, Alicia Alonso Kubako Ballet Nazionalarekin lan egin zuen 1991n.

Bestalde, Espainiako Balleten lana konpainia egonkor bat osatzeko asmoaren ondorio da, taldean bildurik, Espainiako dantzaren historiaren sormena berreskuratu nahi baitute.

Nafarroako Jaialdietan aurkezten duten errepertorioak, flamenkoa, eskola boleroa eta dantza-antzerkia biltzen ditu, tradizioa eta berrikuntza, akademia eta modernitatea elkartzen ditu.

jenero xumekoak

Ikaskizunak

Kanposantuetako ategian agertzen diren esaldi biribil horiek. Gaur gugatik esaten dutena, laster zugatik esango dute. Hil ziren. Atzo nintzen gaur zu zarena, bihar izango zara ni naizena. Hiltzea gero eta konplikatua da.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Ikastolak diru-biltzea abian

LUTXI FOURCADE / BAIONA

1985an, ama ikastola ireki zenean Orzaizen zazpi haurrekin, nehork ez zuen uste ia hamar urteren buruan 50 haur baino gehiago eskolatuko zuenik. Herriko etxeak eskola zaharra prestatu arren, leku hertsiegian aurkitu ziren laster haurrak. Nahiz eta diru laguntzarik ez ukan, eraikuntza berria egitea erabaki zuten gurasoek, lurra erosi ondoren. Bigarren uda dute obretan.

Orzaizeko gurasoak karraskan lanean ari dira. Iraileko sartzea prestatu behar dute eta goizik hasi dira, oporrak'hasi bezain fite lanari lotu baitira. Eraikuntza berria egiten dute lehen mailako klaseentzat, duten etxea zaharregi eta hertsiegi baita ikastolako haur guztientzat. «Denen laguntza beharko dugu mailegua pagatzeko eta deia luzatzen dugu gaurdanik diru laguntza eskuratzeko» deklaratu zion EGUNKARIAri Dominique Amestoik, Orzaizeko ikastolako lehendakariak.

Duela bederatzirte sortu zen Orzaizeko ikastola, ama ikastola ireki zenean zazpi haurrekin. Iduriz arrakasta handia bazuela ikastolak, lehen maila ireki baita 1991ko irailan. «Lehen maila eta ama ikastola kokatzeko aterberik ez genuen» deklaratu zuen Amestoik, azpimarratuz ez zutela inolako laguntzarik jaso ahal izan, ez Herriko Etxetik ezta Kontseilu Nagusitik ere. «Duela 3 urte ikastolak deliberatu zuen lur bat erostea eta eraikuntza hastea», azaldu zuen Amestoik,



Oraingo ikastola txiki gelditu da.

urte horretan ama ikastola eraiki zutenean gurasoek.

Duela hiru urte ere ireki zen lehen mailarentzat, klase berriak egitea erabaki dute gurasoek datorren sarterako. Guraso guztiak lanera lotu dira uda honetan, ahal guziaz eginez. «Burasoek berek ezin egin dituzten lanak ofizialer eginarazten dituzte», gehitu zuen Amestoik.

Beste ikastola bezala, biltzen duten diruaren zatia Seaskari ematen diote burasoek, gainerteko eraikuntza egiteko baliatzen dutenean. «Duela 3 urte, sos biltzeko kanpaina egin dugu eta orai bertze bat abiatuko dugu» de-

klaratu zuen ikastolaren zuzendariak, azpimarratuz «lehen kanpaina 10 milioi 'xahar' bildu baldin bazuten ere, aurtengo mailegua 35 milioi 'xaharrekoa' dela».

Nahiz eta Seaskak Hezkunde Nazionalarekin akordioa izenpetu duen joan den ekainean, ez dela aldakuntza handirik izango Orzaizeko ikastolentzat azaldu zuen bertako lehendakariak. Estatuak Seaskaren gastuen zatia bere gain hartuko baitu, ikastola bakoitzak orain arte ematen zuen zatia apalduko da. Baina eraikuntzaren arazoari ez dio inondik ere konponbiderik ekartzen

akordioak. «Eskola katolikoaren sistema berdinean gara eta herriko etxeak ez dira batere obligatuak gure laguntzera», azpimarratu zuen.

Bestalde, flandriar eta euskaldunen artean harreman sendoak direla eta, aspaldiko urteetan etortzen ohi den flandriar talde bat Orzaizeraino etorri zen aurtun, laguntza emateko asmoz. Uda guziz, etortzen da iparraldeko etortzen ohi dira talde batzutan. ikastola baten laguntzera eta uda honetan, hirugarren aldikotz, talde bat Nafarroa Beherean zen. Hamabost egun pasatu ditu taldeak.



Gertakizun paranormala

Jimenez del Osorentzat kasu aproposa zirudien. Goizeko zazpiak ziren herri txiki bateko jailetako egun handian. Drindots-en dantzaldia amaitu berria, herriko plaza jendez gainezka, salda beroa musu-truk banatzen hastear ziren udal langileak. «Caldico gratis, oiga», oihukatu zuen enplegatuen artean potoloenak. Munduko ahalik gorri eta handien jaiak izan horrek esaldia amaitu aurretik, koadrilakook —egia eranda, horrelako egoeretan putrearen artean putreenak— Abdujaparovek berak ere hobetuko ez lukeen *sprint*-ean aurreneko postuetan heldu ginen salda lapikora, eta baso bana hartu genuen.

Segituan, Lourdesko Ama Birjinaren agerraldien pareko gertakizun paranormalaren lekuko izan ginen. Gu besterik ez ginen zeregumil komplet baino medizinalagoa den edari hura edaten ari. Hiperparanormala. Nafarra bazara, eta zainetan odolik baduzu, halabeharrez sekula santan ezin diozu zure herriko jailetan ordu txiki horietan banatutako saldari muzin egin.

Harriduraren harriduraz jadanik bigarren baso bete salda edaten ari ginelarik, supitoki argia ikusi nuen. Pelikula batean ikusita neukan hori. Bainen inbasioa. Martitzarrak, foru hiriburuko alkate txit agurgarriak esanen lukeen legez, estralurtarrak zehatzago esanda, baina itxurarekin etortzen dira Lurrera, eta hemen gizakiak hil eta euren tankera hartzen dute inbasioarekin aurrera egiteko.

Teoria garatzen ari nintzela, beste gertakizun arraro batek oker nobilela erakutsi zidan. Esku artean neukan plastikozko edalontzia erabat biguindurik zegoen, eta salda lurrera erortzen ari zitzaidan. Ez zen hori beste gertakizun paranormala, beroaren poderioz besterik ez zen. Salda edonor eta edozer kiskaltzeko moduan zegoen. Guk asetebe eman dugu ahoa kiskalita jateko *pajita* bat erabiltzen, eta herrikoek gustura egin zuten barre. Jimenez del Osorentzat kasu egokia zirudien, bai.

Elizondo

San Mixel Garikoitz pastorala bihar Jaialdien barruan

IRUNEA

San Mixel Garikoitz pastorala ikusi ahal izango da bihar larunbata Elizondon, Nafarroako Jaialdien barruan. Arratsaldeko zortzietan hasiko da ikuskizuna, Jaialdi hauetan euskaraz eman den bakarra. Aipatu behar da hau dela Zuberoatik kanpo pastorala egiten den bigarren aldia. Izan ere, Nafarroa Behereko Donaixti herrikkako biztanleek estreinatuta baitzuten uztailean berean.

Pastorala Euskal Herrian gorde den herri antzerki motarik zaharrena dugu, antzinako kondairetako heroi eta pertsonaia bibliko eta mitikoen bizitza, Erdi Aroko santu eta misterioak eszenaratzeko sortua. Orain dela

urte batzuk, gaur eguneko Euskal Herriko pertsonaien historia ere antzezten hasi zen. Zuberoako herriak gaur arte gorde du antzerki mota zahar eta berezi hau, herritar gehienek parte hartuz, herri desberdinetan antzezten dena. Mendeetan zehar, zintzo eta gogoz hartu du herri adierazpen hori zaintzeko ardura.

XVII. mende bukaeran, pastoralak (hitzaren adiera hertsian, artzainek antzeztutako jolasak) ia Europa osoan antzezten ziren. Antzina, pastoralak edo antzeko antzeztanak Iparraldeko hiru lurraldeetan jokatzeko ziren. Mende honetan, Zuberoa izan da tradizioa bizirik atxiki duen bakarra, eta, orain dela hamar urte, urtero obra bat egiten saiatzen hasi zen.



Euskarazko emanaldi bakarra izango da hau.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Norbaiti galdetuko balio te zeintzu diren babestutako animaliak, kalterik inolaz ere ez jasan ezin dutenak, hain segur har-tza, arranoa edo otsoa esango luke. Lagunak gaia gustukoa balu ugatza edo sai arrea esan lezake eta aditua izanez gero, igaraba, basoilarra edo azkonarra. Baina horietako edozeini galdetuko bagenio Nafarroako zer zuhaitz dauden babestuta, harridura aurpegia jarriko zigun. Eltzaburuko haritza, Oriongo astigarra edo Otxoportilloko hagina esanez gero, ez ulertzearena egingo zigun. Baina Diputazioko jauregiko sekuoia erraldoia edo Bertizko zedroa aipatuko bage-nio, akaso entzunak izango zi-tuen, eta ez litzateke haritzekoa, frankotan soilik inguruko he-rrietan baitira sonatuak hosto adina urte duten zuhaitzok. Eta, halabaina, ez dute otsoak edo ba-soilarrak baino interes txikiago-rik.

Hauek, eta Corellako arteak, edo Nabalako pagoa, edo Azpa-rrenge elorri zuria, naturaren monumentu izendatu zituen 1991n Nafarroako Gobernuak, bere sailkapena egin ondoren. Ondorioz, ez dago moztetik, ez bere azpian kaltetu dezakeen edozer egiterik, beste debeku batzuk artean. 400, 600 edo 800 urte dituzten izaki bizidunak di-ra, eta helburua beste hainbeste irautea da. Horretarako zainketa eta kontserbazioa ditu bere esku Nafarroako Gobernuak.

Monumentu hauek izendatze-ko Gabriel Igiñiz biologoa hasi zen lanean 1989an. Maria Jesus Urrizarekin batera, Nafarroan zeuden zuhaitz esanguratsuen katalogoa egiteko enkargua har-tu zuen, eta lurralde osoa bisitatu eta arakatu zuten horretarako. Basozainak, biologoak eta ar-tzainei galdetu, udalari deitu eta inguruko zuhaitzen zerranda egin zuten. Handik 150 zuhaitz inguru atera ziren, eta, azkenean 31 aukeratu. Zerranda ez dago itxita, eta urtero egin daitezke talde berezi honen 'bazkide' be-rriak, baina horretarako ezohi-koa behar du izan landareak. «Zuhaitz batek 300 edo 400 urte izatea ia sinestezina da» dio Ga-briel Igiñizek, «harrigarria dela-ko urte hauetan guztietan aizkora edo sutetik alde egin izana». Ho-rrren arrazoa, gehienetan, herri-ko ohiuretan bilatu behar da, gertakizun celebre edo pasadi-zuren batean. Horri esker, zuhai-tza ezaguna egiten da inguruan, eta bere ondokoek baino askoz gehiago irauten du. Garbi dago, baina, zerbait aipagarri gertatu dela haien inguruan. «Ez dira bat-batean sortzen diren zuhai-tzak» dio Igiñizek, «desagertuz gero beste 400 urte itxaron be-harko ziren eta».

Hori dela eta, minberak ere badira, eta edozer gertaerak kalte neurtezinak sor ditzake. Zuhaitz zaharrak izanik, frankotan gai-



Ez dira hegaztiak, ez ugaztunak, ez erreserba handiak. Zuhaitzak dira, mende franko bizitakoak, eta naturaren monumentuaren izendapena dutenak. 31 dira Nafarroa osoan, eta horiek zaintzen eta sendatzen aritu da Gabriel Igiñiz biologoa. Katalogoa egin ondoren, hirietako zuhaitzen plangintzarekin buru belarri dabil orain 44 urteko irundar hau.

Naturaren monumentuak

izak jota daude, baina, hala ere, urteak eta urteak irauten ditzakete berdin-berdin, Igiñizek azaltzen duen bezala. «Zuhaitz bat osasuntsu egon daiteke azalean, hau da, urtero-urtero hosto berde-berdeak atera ditzake, eta bat-batean hil, barrutik usteldurik dagoelako. Eta gerta daiteke kontrakoa, enborra primerakoa izan, gaitzik gabekoa, eta hos-toak pipiek jota izan, eta azke-nean zuhaitza lehortu». Izan ere, zuhaitz zahar hauek gehienek badute onddo edo esporekin arazoren bat edo beste. Minbizia, ulertzeko. Baina, harrigarria bada ere, gaztarok adina irauten de-zake zuhaitz baten zahartzarok. Horretarako, kontu handiz joko-tu behar da.

Gaitz hauek sendatzen ere ar-duratzten da Igiñiz. Bera da Eus-kal Herrian aditu bakarra, eta mundu osoan gutxi aritzen dira lan horretan, espezializazioa handia baita oso. Horregatik, berak dakiena bere kabuz ikasten eta nolabaiteko esperientzia zu-tenengana jotzen lortu du. «Ha-sieran astakeria handiak egin daitezke. Kontuan hartu behar da edozerk izan dezakeela eragina

epe motzean: gaizki moztutako adar bat dela, edo sute bat ondoan, edo pista bat, betiko sumatuko ditu zuhaitzak». Horregatik, edozer egin baino lehen zuhar-tasuna azpimarratzen du biolo-goak. «400 urte egon baldin bada toki berean, ez da hain gaizki bi-zi, eta onena pakean uztea izaten ohi da, baldintza horiek alda ez daitezken. Hori bai, zerbait aldatu baldin bada epe laburrean, neu-rriak hartu behar dira».

Diputazioko sekuoia edo Bertizko zedroa izan dira bere azkenotako lanak. Lehendabizi-koa 1933an eroritako tximista batek zauritu zuen, eta orduz ge-zake zehar hasi zen hazten. Igi-ñizek bi adarrak lotu zituen eta gida zuzen jarri. Bertizko ze-droari zenbait adar moztu ziz-ki, ustelduak baitzeuden jada, eta haurrak igo ez daitezken hesi bat paratuko da ondoan. Itxuraz sendo baina barrutik minbera, beraz, eta batez ere lurra-zen az-pitilik. «Hor dute bizitzaren erdia, eta hor gertatzen den guztia su-matzen dute».

Naturaren monumentu izen-datutako Nafarroako zuhaitzen katalogoa behin egin eta bere



Gabriel Igiñiz.

JOXE LACALLE

babes legala zehaztuta, soilik ar-gitalpena falta da, nahiz eta Go-bernuak oraindik horretarako ez dute Administrazioaren babes ofiziala. Zuhaitzak biltzeko iriz-pidea ere oso bestelakoa izan

Elkartean, han argitaratuta bai-tago katalogoa, baina zuhaitzek ez dute Administrazioaren babes ofiziala. Zuhaitzak biltzeko iriz-pidea ere oso bestelakoa izan



3 00 edo 400 urte dituzten zuhaitz hauek oraindik gure artean irautearen arrazoa pasadizo edo gertakizun batenekin lotzen da kasu gehienetan.



Goian, Eralgo artea, eta ezkerrean, Garaioako haritza. Zuhaitz horiek Nafarroako Gobernuak naturaren monumentu deklaratuak 31etako bi dira. Eskuinean, Iruñeko zuhaitz bat, kutsadurak eta mozketak eragindako gaitzak jota. GABRIEL IGIÑIZ

Hirietako zuhaitzak, funtsezkoak baina egoera «penagarrian»

A.B. / IRUNEA

Naturaren monumentuekin lanean jarraitzen badu ere, gaur egun hirietako zuhaitzekin bu-ru-belarri sartuta dabil Igiñiz, horretarako sortu duen enpresa-rekin. Berak dioenez, zuhaitzei ez zaie behar duten arreta eskain-tzen, eta Hirigintza Saileko az-ken atala dela-eta kexu da. «Zu-haitzak funtsezkoak dira hiri ba-tean. Eta ez bakarrik ikusmena gozatzeko, baita itzala emateko, haizetik babesteko, zarata eta kutsadura leuntzeko, lurra atxi-kitzeko... Baina hirietako zuhai-tzek egoera penagarria dute eta lehen makalekin gertatu zen be-zala, hamar edo hogeitaz berru platan guztiak hilko zaizkigu».

Irunen (Gipuzkoa) jaiotako biologo honen ustetan, bi dira gaur egungo hirietako zuhaitzen gaitzak: planifikaziorik eza eta langileen prestakuntzarik eza. «Lorazaintza zerbitzu baten le-hentasunak jendearen lehenta-sunak dira» dio. «Hau da, zuhai-tzak gaitzak jota egon daitezke, baina lau lore polit landatzen baldin badituzte, jendea pozik. Izan ere, zuhaitzek epe luzerako lana eskatzen dute, eta lan han-behar da. Geuk geurearekin lan egin behar dugu, etorriko dira eta lekukoa hartuko dutenak».

Horrekin batera, zuhaitzak



zertarako eta zer lekutan landatu behar diren kontuan hartu beha-rran, toki guztietan gauza bera landatu da aspaldi honetan, eta horrek min handia egin duela dio Igiñizek. «Hirietako zuhaitzek duden gaitzetako bat izan da toki guztietan landatu dela gauza be-rra, eta asko. Orain platanok

H irietako zuhai-tzak gaitzak jota egon daitezke, baina lau lore polit landatzen baldin badituz-te, jendea pozik».

daude, eta lehen makalak. Eta paratu dira horretarako tokirik ez zegoen tokietan, eta hortik sortu dira inausketa basatiak, zuhai-tzen gaitz guztiak». Halaber, hiri modernoetako lurra ez dela oso aproposa azaldu du. «Lurra oso zapalduta dago, oxigenorik gabe, eta asfaltua bera gero eta hobea da. Hau da, gero eta ur gutxiago sartzen da, eta gero eta zailago egiten zaio zuhaitzari behar di-tuen elikagaiak lortzea».

Irtenbidea, jakina, ezin daite-ke izan espaloiki puskatzea, eta

plangintza eta prestakuntza ho-behu beharra azpimarratu du Igi-ñizek. Hori lortzeko zenbait he-rritan hasiak dira zuhaitzei buruz ikerketak egiten, eta gero ikas-tarok ematen dizkiete lorezain-tza arloko langileei. «Inauskete-tan txandrio handiak egin dira zuhaitzekin. Baina ezin dira platanok landatu etxek ingura-turik dagoen kale batean, azke-nean adarrak moztu egin beharko direlako. Horregatik, zer tokitan eta zertarako nahi dugun aztertu behar da lehendabizi, eta horren arabera, zuhaitzak landatu on-doren. Jakina, ez da egun bateko lana, baina ongi egiten bada, 30-40 urte barru zuhaitzi ederrak lor ditzakegu».

Iruñean hasia da lanean, eta aurten emango du bigarren ikas-tarua, eta Barañainen egina du dagoeneko egoerari buruzko az-terketa. Halaber, Antsoain, Ata-rrabia eta Uharterko udalekin akordioa lortu du hiru herrietako udal langileekin lan egiteko, eta Altsasun ere harremanetan dago Udalarekin. Baina bere jarduer-a ez da Nafarroan geratzen eta urrian Hernaniko (Gipuzkoa) Nekazari Eskolan, Arteaga-Za-balegi Fundazioarekin, zenbait udaletako langileei beste ikasta-ro bat emango die.

mintzoak

Belarria

● Belar aroa alegia. Arras aintzinarik dago jadanik gure herrietan, abantxu fi-niturik. Negu otz, ilun eta luzearen ondoren lan handia egin behar da udan. Behin aro geitza joanik, heldu da lan egiteko me-mentua.



Ez dago igandea edo festa, egu-raldi ona —belarria— ala ez beizik. Atzendurik du-gu, zorionez, apezek igandetan lan egiteagatik gardien aitzinean sala-tzen zutenekoa.

Zaloiki joaten da jendea iduzkipean (eta fierki ari du aurten beitan!) belarren egitera, heldu den negua buruan dutelarik, txinaur-riek bezala. Baina labo-rariez landa, bada bertze jende zemeit belarrian 'lanean' ari: turistak.

Urteik urtera ari zaiz-kigu gehiagotzen udati-rrak; ueste giuduen beila urteko kontua zela, baina kia! Hauek, funtsean, be-larrian ere dira heldu, ez belarren egieko, zapaltze-ko beizik (edo ikusteko bederen).

Laborarien gisara su-tsuki ari dira, denbora gu-zia profutatuta beharrez; ahalik eta bazter gehien ikusi nahiz, hemen geindi dabilta, ezker-eskuin otomobiletan sarturik, izerdi uharetan, kanpora menturatzeko beldurrez beilitzan, kotxe zilo jen-dakia.

Hori bai, disfrutatzen (?) eta dagozkien bete-be-har guzikiak prestuki egiten: azantza sortzen, kabalak iziten, oro fotografiatzen, nonnahi gaitzen, zernahi galdegiten («Zein herrian nago?») herri sarreran imi-nirik ez balego bezala ala... ez ote dakitela leitzen?», toki guztietara kotxez ai-legalatu nahian, bide zail-erak zikitzen... eta soge-txi uzten (edo eskas bat-zuei uzten bederen).

Uholdea handitzenago eta eskualdea... hobeki? (ez, ez da Iparraldeko ara-zoa soilik).


Ezin ebaitu da jendea bazter eder ikuska etor-tzea, baina zernahi egiten uzten ahal zaie? Nonnahi-rra sartzen ahal?

Alta hau da gure herriei eskeintzen zaien bizibide berria... bakarra ote?

Basajaunak begira gi-tzala!



XAKEAN



Iruñeko Hiria Torneo Itxiaren hirugarren ihardunaldiko partida, 1993ko abenduaren 29koa.

Jesus De la Villa, 2.440 ELOkoa (Nafarroa)—Felix Ize-ta, 2.510 ELOkoa (Gipuzkoa).


1.e4,c6; 2.Zc3,d5; 3.Zf3, Ag4; 4.h3,Ah5; 5.d5,d5; 6.g4, Ag6; 7.Ab5 xa,Zc6; 8.Ze5,Gc8; 9.d4,e6; 10.De2,Ad6; 11.Zg6, h-g6; 12.Zd5,Ab8; 13.Zb4,Dd4; 14.c3,Df6; 15.Zc6,c6; 16.Aa4, Ze7; 17.Ae3,0-0; 18.0-0,Zd5; 19.h4,Af4; 20.Ab3,De5; 21.hG-e1, Gb8; 22.Af4,Df4 xa; 23.Eb1,fG-d8; 24.Gd4,Dc7; 25.De5,De5; 26.Ge5,Ef8; 27.h5,h5; 28.Gh5,Ee7; 29.Ec1, Zf6; 30.Gd8,Gd8; 31.Ga5,Gd7; 32.f3,Zd5; 33.Ga6,Ed6; 24.Ad5,e-d5; 35.Ed2,g5; 36.b4, Gc7; 37.Ee3,Ee5; 38.a4,c5; 39.b5. Posizioa nahiko irekia dago. Borroka somatzen da.

39....,d4 xa; 40.Ed2,Ed5; 41.Gf6, Ge7; 42.Gf5 xa. Ikus Koadroa. Bukaerako guda lehertu da. 42....,Ec4; 43.d4,d4; 44.Gg5,d3; 45.Gf5,Ge2 xa; 46.Ed1,Ga2; 47.Gf7,Ga1 xa; 48.Ed2,Ga2 xa; 49.Ee3,Ge2 xa; 50.Ef4,d2; 51.Gd7,Ec3; 52.g5, Ge1; 53.g6,d1=D; 54.Gd1. Beltzen helburua berdinean amaitzen da. 55.a5,Gb1; 56.Ee4,Ec4; 57.b6, b6; 58.b6,Gb6; 59.Ef5, Ed4; 60.f4,Ee3; 61.g7,Gb8; 62.Ee5,Gg8; 63.Ef6,Ef4; 64.Ef7,Gg7 xa; 65.Eg7. Saiatu ziren, bai, garaipearen bila. Txuriek presio gehiago egin arren, atzenezan oreka sinatu behar izan zuten.

Etxe eroso, norentzat?

Goizeko 6ak dira. Ezin dut lorik egin. Eguzkiak logelako lagunari aurpegian ematen dion birtartean, berak irrifar goxo batekin erantzuten dio, beti bezala. Uda hasi zenetik, hauek dira goizero nere diarioan apuntatzen ditudan hitzak, berdin-berdinak lehendabizikotik hasita azkenekora arte, otoitz bat izango balitz bezala.

Bizitza hemen oso eroso da, baina mundu errealetik nahiko baztertua. Hemen dena arrosa kolorekoa da: lo egin, jan, jolastu, paseoak eman, irakurri, telebista ikusi. Haurtzaindegian bezala gau-



Ainara Fernandez

(BARAÑAIN)

go gehienek adina bikoizten diegu erizainei eta haiek baino esperientzia gehiago daukagu bizitzan. Hala ere, ume batzuk bagina bezala tratatzen gaituzte.

Honera ekarri nindutenean, beste gauza zela esan zidaten. Noski, etxean ezin nintzen gelditu nere alabak eta bere senarrak etxetik kanpo lan egiten zutelako eta gainera Aitortxo zeukaten zain etxera ailegatzerakoan. Orduan esan zidaten: «...begira aita, hoberena izango litzateke zure adineko jendea bizi den etxe horietako batera joango bazina, han ez zara bakarrik egonen baizik eta lagunengatzen. Gainera dena eginda izango zenuke eta egun guztian zehar gustoko dituzun gauzak egingo zenituzke...».



de, baina askoz urte gehiagorekin. Bai, bizitza eroso baina aspergarria eta monotonoa, beti jende bera inguruan.

Baina txarrena gauak dira. Ohean sartu eta ondoko logelan dagoen Ferminen eztulak etengabe nere belarrian mailukadak izango balira bezala sartzen zaizkit. Eta hau ez da txarrena. Lotara joan baino lehen komunak merkatua dirudi: bata muletekin, bestea 'sonotonea' edota betaurrekoekin, edo horzdura postizoak;

den dena konketaren gaineko apaletan elkartzen da, garbitasunerako behar dugun guztia eta zenbakia, arroxa edota urdinez, segun eta emakume ala gizon zaren, oso txukun ordenatuak daudela.

Behin garbitasuna amaituta, bakoitza bere logelarantz abiatzen da, bakoitzak ahal duen moduan oso burugogorra bada (ni adibidez) edota muletez eta erizainen laguntzaz baliaturik. Ez zait atsegin ume mukizu batzuk bezala tratatzea. Hemen-

Bai, oso polita dirudi. Agian txarrena nere adineko jendeak inguratuta egotea da. Ez dago bizitzaren arrastorik inon, jada hilda egongo bagina bezala.

Txominek bere ezkerreko besoa altxatu du. Laster ohean eseriko da eta futbolaz hitz egingo dugu. Behintzat jendea jatorra da eta gure artean ongi moldatzen gara, izpiritu gazteagoak sentitzen gara gehienok. Beste batzuk ordea...

JUANTXO URDIROZ



Hauetariko bat, edo hemengo jendeak Homero irakurtzen zuen edota Homerok Mendabiako laguntzaile bat zuen.

Mendabiako Ojankoa (I)

Tartaro, Torto, Anxo, Alarabil eta Gentilak Nafarroako alderdi menditsuan bakarrik bizi direlako ustea daukagu. Hona hemen J.I. Garcia Armendariz jaunak Ager Vasconumeko Mendabian jaso zuen ipuin bat. Funtsean, Tartaroren alegia da, edota Odiseako Polifemoarena. Hauetariko bat, edo hemengo jendeak Homero irakurtzen zuen edota Homerok Mendabiako laguntzaile bat izan zuen. Horrela, bada, bistan da euskaldunok lagun apartak gara, baina jakin badakigu keinuz bederen aldamenekoekin mintzatzen. Orain endelegatzen dugu zergatik 'Arkumeen isiltasuna' pelikularen bukaera hain beldur-

garria eta sinisgarria gertatzen zaigun. Zenbat ipuinetan ez ote dugu bukaera hori bera aditu? Kobazulo ilun batean basaki gizajale bat, eta haurra hanka egin nahian. Zenbat ipuinetan ez ote zaigu erraldoi gizajale bat ageri, bihar goizean haurra gosaldutik behar duena? Garbi dago beldur hori oso gurenaturik daukagula, eta 'Arkumeen isiltasuna' egin zutenek kontutan hartu zutela. Jan ditzagun haurrak, otsoak arku-meak jaten dituen bezala. Hala ere beti bukaera oneko ipuinak ditugu, hori derrigorrezkoa. Bestela nor ote loak hartuko? Hona hemen, bada, Homeroarengatik hasita Hollywood-eraino ai-

legatu den ipuina, Mendabian osatatu aurkituz.

Ojankoa (begizarrak) Bi fraide, arratsalde batean konbentutik atera eta gautzen hasia zela galdu egin ziren. Bata haundia bezain beldurtia zen eta bestea tippia bezain ausarta. Halako batean, ekaitzak harrapatzen ditu. Haietako batek urrun-urrun dirdira egiten zuen argitxo bat ikusi zuen. Txikienak, argia ikusi bait zuen, besteari esan zion haurtz seinalatuz:

—Han lekutan argi bat datusat. Nahi al duzu hara joan?

—Hilgo gaituzte— esan zuen fraide haundiak.

—Baina joan beharra daukagu. 'Akabatuko gaituzte-ka' ari zen fraide haundia. Azkenean argirantz abiatu ziren eta etxe haundi batera heldu ziren. Burdinezko

atean joka ari ziren. Pum-pum-pum, soinaten zuen ateak. Handik gutxira atea ireki egin zen, beldurrezko zaratosa sortuz eta alimalezko erraldoi haundi haundi bat ageri zen, kopetaren erdi-erdian begi beiradun baka-rrekoa. Begizar nagusia zen eta esan zien:

—Sartu, sartu eta sartu.

—Oraintxe goaz— erantzun zioten fraideek, beldurrak akabatzen. Sartu egin ziren.

—Zoazte goitira, zoazte goitira, zoazte goitira— esan zuen begizarrak.

Sabailako zutabetik giza zango, beso eta barrukoak zintzilikatuta zeuden.

—Zoazte goitira, zoazte goitira, zoazte goitira.

—Bagoaz— erantzun zuten bi fraidek.



Jende andana bilduko da hilaren 28 Arakil-Uhartean.

Artzai Eguna ospatuko da datorren abuztuaren 28an, igandea, Arakil-Uhartean. Orain dela hogeita zazpi urte hasi zen Artzai Eguna ospatzen bertan, eta Aralar-Mendi elkarteak antolatzen du. Artzainen topaleku, mendi nekazaritzaren gora-beherak ezagutzeko aukera eskaintzen du Arakil-Uharteko jai egun honek eta artzainaren figura herritarrengana hurbiltzen du.

Artzai Eguna Uhartean

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Nafarroako Artzai Eguna ospatuko da datorren abuztuaren 28an, igandez, Arakil-Uhartean. Aurtengoa 27. edizioa izango da eta aurreko guztiak bezala Aralar-Mendi elkarteak antolatuko du. Aurtan hogeita bost urte bete ditu elkarte honek eta hasieratik, Artzai Egunaren bidez, artzainen

aldeko apustua egin du. Ohiturak agintzen duen legez ere, abuztuaren azken egunean ospatzen dute artzain nafarrek euren jai eguna.

Artzai Egunari hasiera emateko, Nafarroako ardi esnez egindako gazta txapelketa egingo da goizean. Gainera, nafar ardi latxaren erakusketa eta txapelketa izango da, ardi burubeltzek

zein burugorriek parte hartuko dutela. Esne gehien eman duen ardiak ere saria jasoko du. Ardi irabazlea zein den jakiteko, noski, albaiteroen laguntza izango dute antolatzaileek, urtean zehar egindako kontrolari esker. Hain zuzen ere, genetikaren bidez arrazaren kalitatea asko hobetu da eta, ondorioz, esne kopurua ere igo egin da. Goizeko ekital-

diak ile-mozte txapelketarekin amaituko dira. Arratsaldean, berriz, artzain-txakurren txapelketa egingo da, eta baita euskal artzain-txakurraren erakusketa ere.

Ardiak izango dira, beraz, artzain eta artzain-txakurrekin batera eguneko protagonistak. Nafarroan, seiehun mila ardi inguru dago, ardi borroa barne. Noski, kopuru hori askoz txikiagoa da soilik ardi latxa kontuan hartuz, 190.000-200.000 inguru. Euskal Autonomi Elkarteak, berriz, 260.000 ardi latxa inguru dago eta Iparraldean 350.000. Ardi mota bi horien arteko ezberdin-

Euskal artzain-txakurra

E.E. / IRUNEA

■ Mariano Gomez albaitero bilbotarrak euskal artzain-txakurrari buruz tesia egin du. Udazken aldera aurkeztuko du Madrilgo Albaitaritza Fakultatean eta bertan euskal artzain-txakurraren arrazaren onspena eskatuko du, bai estatuan bai nazioartean.

Mariano Gomezek betidanik izan du artzain-txakurren txapelketetarako zaletasuna eta ez du ulertzen orain arte arrazatzat onetsi ez izana. Hutsune hori betetzeko asmoz ekin zion lanari eta Euskal Herri osoko artzain-txakurrak aztertu ditu horretarako. Guztira 1.500 txakur inguru ikertu ditu. Odol azterketak, neurketak, azterketa biokimiko eta genetikokoak. Mota guztietako probak egin dizkie txakurrei euskal arraza finkatu asmoz. Artxibategi eta txapelketetako ar-

«**A**zken urteotan genetikaren bidez arrazaren kalitatea asko hobetu da, eta ondorioz esne kopurua ere igo egin da».

tasunak aipatu ditu Jose Angel Bakaikoa Aralar-Mendiko kideak. «Ardi borroa Erribera aldean dagoen ardia da. Ardi mota hori ez da esnea lortzeko erabiltzen, arkumeak lortzeko baizik. Beraz, lan gutxiago eskatzen dute eta artaldeak handiagoak izan daitezke, mila ardi inguru koak. Ardi latxa, ordea, esnea lortzeko erabiltzen da eta hostehun ardiko artaldea, jada ondia da».

Hala ere, artzainen bidez ez da batere erraza eta laguna badituzte ere, arazo asko dituzte. Ardi ugari dago, Aralar-Mendiko kideek erraten dutenez, baina artzain gutxiago. Hori dela eta, Artzai Egunaren bidez, «sektore hau suspertu eta euren produktuak promozionatu» nahi dituzte. «Artzainak kalera hurbildu behar du, egin duen gazta erakutsi eta saldu» dio Bakaikoa. Hori guztia egin ahal izateko aukera paregabea eskaintzen du Artzai Egunak Arakil-Uhartean. Bereziki azoka antolatzen dute urtero abuztuaren azken igandean eta ardiak eta gazta ikusi eta erakustez gain, artzainen munduarekin zerikusi duen edozerk eta edozeinek badu bertan txokorik. Horren adibide argia dira urtero Arakil-Uhartean biltzen diren Nafarroa osoko artisauak, karkugileak eta abar. Gainera, mendi nekazaritzaren atzoko eta gaurkoek topo egiten dute eta artisauen panean, besteak beste, gazta egiteko modu berriak ere ezagutarazten dituzte partehartzaileek.

gazki zaharrak ere aztertu ditu eta datu guztiak bildu ditu bere tesian.

Euskal artzain-txakurra bi motatakoa da, iletsua edo Gorbeiakoa izenekoa, Gomezek dioenez. Kataluniako edo Frantziako artzain-txakurren aldean, euskal artzain-txakurrak ezaguerri berezi eta propioak dituela azaldu du albaiteroak. «Euskal artzain-txakurra tamaina erdikoa da, begi marroiak ditu, buztan osoa eta ezproiak atzeko hankean. Iletsua bada hare kolorekoa da eta Gorbeiakoa, berriz, gorrixka».

Arrazaren onspena oraindik egin ez bada ere, joan den uztailaren 30ean aurkezpene ofiziala egin zuten Bizkaiko Busturia herrian. Bertan 280 txakur bildu ziren baina azterketa zorrotza egin ondoren, 75 baino ez ziren onartu euskal artzain-txakurtzat.



Euskal artzain-txakurraren erakusketa izango da.

«Kanpionek alderdi kulturala defenditu zuen politikaren aurrean»

A. BARANDIARAN / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Zergatik aukeratu zenuen Arturo Kanpionen lana zure tesia egiteko?

JOSE JAVIER LOPEZ.— Ikasketak egiten ari nintzela, lau garren mailan, Amaiurko gazteluaren defentsaren inguruan 1921ean izan zen eztabaidan parte hartu zuten familia noblei buruzko lan bat egin nuen, eta han aurkitu nuen Kanpionen eta Victor Praderaren arteko taldeen lehia ideologikoa. Kanpionek nahi zuten eraiki Amaiurko oroita-

rian izan dela pertsonalitatearen galtze psikologiko handia. Historiak mentalitatean eragina duen kontzeptua erabiltzen du, eta esaten du Nafarroako identitatea gaztelanizatu egin dela.

EGUNKARIA.— Uste duzu ebitaezina izan zela Praderaren eta nazionalismo espainiarren nolabaiteko garaipena?

LOPEZ.— Bai, Kanpionek nazionalismo kulturalaren aldeko borroka egin zuelako. Beti defenditu zuen Euskal Herria hitza Euskadi hitzaren aurrean, eta lehia bizia izan zuen

zionalismoa eta Kanpionen 'Sociedad Euskera-ren' artean. Azken honek gehiago erreparatu zion hizkuntzari, eta ez arrazari, Sabinoren taldeak bezala.

EGUNKARIA.— Kanpionek bazituen hainbat alderdi: politika gizona, hizkuntzalaria, historilari, idazlea. Zein zen garrantzi handien izan zuena bere bizitzan?

LOPEZ.— Denetarik izan zen, eta baita antropologoa ere, baina bere alderdi literarioa oso garrantzitsua izan zen. Hasieran ikertu egiten zuen

rra' eta Yanguas y Mirandaren lana, alde batetik, eta Lacarra- ren lanaren artean dago, zubi gisa. Funtsezko lana da. Bere idazlanen artean 'Blancos y Negros' edo 'La Bella Easo' Euskal Herriko mentalitatearen historia dira ia-ia, eta egin zuen lau euskalkien gramatika ere oso garrantzitsua zan zen.

EGUNKARIA.— Hil zenean, 1937an, egunkari batek esan zuen ez zuela Nafarroa inoiz ulertu, eta ondoren ahaztu egin zuten. Kanpionek ez zuen Nafarroa ulertu edo Nafarroak ez zuen Kanpion ulertu?

LOPEZ.— Nik uste dut oso ongi ulertu zuela Nafarroa, baina orduan herria oso banatuta zegoen politikarengatik eta kultur gizon bezala, ez zen mol-

Jose Javier Lopez

HISTORILARIA



Jose Javier Lopez, Iruñeko bere etxean.

JOXE LACALLE

ria, eta Pradera aurka azaldu zen. Kanpionen taldea nabarrista, euskalzalea, foruzalea eta katolikoa zen, eta Victor Pradera azaldu zen ideia nazionalista espainiarren aldeko defenditzailea. Orduan, niri asko interesatu zitzaidan ikustea nola defenditzen zen, XIX. mendeko argudio historikoen bidez, erresuma zaharraren nortasun euskalzalea eta nafarzalea. Kanpionengan, horrela, aurkitu daiteke Nafarroako historiaren oso filosofia metodikoa. Berak dio —eta horrek biziki bultzatu nau lan hau egitera— Nafarroaren histo-

Sabino Aranaren eskola gramatikalarekin. Gauza guztien gainera alderdi kulturala defenditu zuen, alderdi politikoaren aurrean. Berak uste zuen bazela Euskal Herria, bazela erlijiotasun bat, kultura bat, baina ondoko estatuek —Espainia, Frantzia— ez zuten gehiegi kezkatzen.

EGUNKARIA.— Nolako harremana izan zuen Sabino Aranarekin?

LOPEZ.— Ez ziren oso ongi moldatzen, nahiz eta errespetua zioten elkarri. Baina Gamazadaren aurretik, nire ustez, eten bat izan zen Aranaren na-

dokumentuetan, artxiboetan, eta gero horrekin egiten zituen ipuinak edo idazkiak. Bere lan hauetan antzeman daiteke jarrera ezkor bat Euskal Herriaren aurrean, eta horrek bultzatu ditu lagun asko kontzientziazio politikoa hartzera, Euskal Herriko tradizio eta izaera asko galtzen ari zirela ohartuta.

EGUNKARIA.— Eta zein da, zure ustez, bere lanik garrantzitsuena?

LOPEZ.— Nik aukeratuko nuke, dudarik gabe, 'Euskariana, 9. atala', eta bere hausnarketa hori guztia. 'Anales de Nava-

«Kanpionek zioen etorkizuneko Nafarroa, erroei atxikita, ez zela gauzatu euskaldunen arteko batasun ezarengatik».

datzen euskal abertzaletasunarekin ez eta Espainiaren aldeko nazionalismoarekin ere. Ondorioz, ahaztu egin zuten, bai, baina azkenotan berreskuratu egin dela uste dut.

EGUNKARIA.— Hala ere, ez zituen ondoren jarraitzaileak izan.

LOPEZ.— Gerrarekin bere taldea desegin zen, eta akaso, bai, hori izan du faltan, jarraitzaileak. Hala ere, Victor Manuel Arbeloa, Fernando Bidegain, Carlos Claveria edo Julio Caro Barojarengan aurkitu daitezke Euskal Herriari buruzko bere hausnarketen hondarrak. Eragin politikorik, ordea, ez dago, nahiz eta alderdi politiko batzuk ahalegintzen ari diren Kanpion bultzatzen.

SOSLATA

Historia

kulturalaren atzetik

Arturo Kanpionen lanari buruzko tesia irakurri zuen joan den hilean Nafarroako Unibertsitate Publikoan Jose Javier Lopez ikerlariak eta horrela lau urtetako lana amaitu. Ignacio Olabarri Cortazarren zuzendaritzapean, idazle, historilari, gramatikari eta politika gizon iruindarra aztertu du Lopezek, eta lana bukatuta badauka ere, euskaltasun kulturalari buruzko ikerketekin jarraitzeko asmoa du, irakas-kuntzarekin batera egin ahal izateko. Lau urte hauetan, idazki, artxibo eta testigantza franko bildu ditu 28 urteko gazteak, eta Renoko Unibertsitatera joateko aukera eskaini badiote ere, Nafarroan jarraitu nahiko luke, historia kulturalari atxikitzeko.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

